



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2023/04/25ean EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 25/04/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Josu Ezkurdia Santamaría
Maite Uribe Beristain
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Xabier Uriarte Iñurrategi

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko apirilaren 25ean, arratsaldeko 17:30ean, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ezohiko Udalbatzarra gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Leire San Vicente Carrillo.

En Eskoriatza, siendo las 17:30 horas del día 25 de abril de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Leire San Vicente Carrillo.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAD376K.x7me>

2023/04/25
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1.- AGENDA 2023-HIRI JASANGARRIA: ENERGIA Ikasleek egindako lana, ondorioak eta proposamenak

Alkateak ongietorria eman die herriko ikastetxeetako ikasleei.

2030 Agenda Programaren barruan, 2022-2023 ikasturtean, ENERGIAREN gaia landu da, eta ikasleek beren proposamenak Udalbatzarrari aurkezteko dokumentua irakurri dute.

Egiten dituzten proposamenak akta honen eranskinean jasotzen dira.

Lanaren aurkezpena amaitu ondoren, alkateak eskerrak eman dizkie parte-hartzaile guztiei egin dituzten ekarpenengatik, eta ikusten denagatik, oso gogor lan egin dutela esan die. Berriro eskerrak eman ondoren, hitza eman die udal taldeetako bozeramaileei.

Nestor Aranak, EH BILDUREN izenean, egindako lana eskertu ondoren, adierazi du oso proposamen interesgarriak aurkeztu dituztela, aurkezten diren erronkak kontuan hartuta, eta adierazi du ilusio handia egiten diola hain jende gazteak ekimen horiek izatea. Amaitzeko, taldearen laguntza eskaini du ekintza horiek abian jartzeko, eta lana bikaintzat jo du.

Josu Ezkurdiak, EAJ/PNVren izenean, eskerrak eta zorionak eman dizkie egindako lanagatik, eta bere taldearen laguntza eskaini die proposatu dituzten ekimenak egiteko.

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:50ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.- AGENDA 2023- MUNICIPIO SOSTENIBLE: ENERGIA. Trabajo realizado por los alumnos, conclusiones y propuestas

El Alcalde da la bienvenida a los alumnos de los centros escolares de la localidad.

Dentro del Programa Agenda 2030, durante el curso 2022-2023, se ha trabajado el tema de la ENERGIA y los alumnos leen el documento en el que presentan a la Corporación en Pleno sus propuestas.

Las propuestas que hacen constan en el Anexo a la presente acta.

Terminada la presentación del trabajo, el Alcalde agradece a todos los participantes las aportaciones que han hecho y con las que se ve, dice, que han trabajado muy duro. Tras volver a agradecerles, cede la palabra a los portavoces de los grupos municipales.

Nestor Arana, tras agradecer en nombre de EH BILDU el trabajo hecho, manifiesta que han presentado unas propuestas muy interesantes teniendo en cuenta los retos que se presentan y señala que le hace mucha ilusión que gente tan joven tenga esas iniciativas. Termina su intervención ofreciendo la ayuda de su grupo para poner en marcha dichas acciones y calificando de sobresaliente el trabajo.

Josu Ezkurida, en representación de EAJ/PNV, también les agradece y felicita por el trabajo realizado y ofrece la colaboración de su grupo para lleva a cabo las iniciativas que han propuesto.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:50 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

ESKORIATZAKO UDALARI

PROPOSAMENAK



2022-2023 ikasturtea

2023/04/25
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Hiri jasangarria: ENERGIA

Aurten, Eskolako Agenda 2030 programaren baitan, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleok, Hiri Jasangarrien helburua landu dugu eta batez ere Energian zentratu gara.

Aurten Agenda 2030ek berrikuntza bat dakar: bi urterako programa izango da. Ikasturte hau herriko diagnosis egiten eman dugu eta hurrengoan, herri mailan eskuhartze bat egingo dugu.

Horrela, otsaila eta martxoa bitartean gai honen inguruan egindako lana eta azterketa horretako ondorioak erakustera gatoz, eta baita datorren ikasturtera begira gure eskuhartze proposamena egitera ere. Hona hemen mailaz maila egindakoa.

2. mailako ikasleok gure herriko etorkizuneko elikadura nolakoa izango den aztertu dugu. Azterketa egin eta gero atera ditugun ondorioak hauek dira:

- Konturatu gara ez dugula ohiturarik bertako eta garaian garaiko janariak jateko. Etorkizunean, energia aurreztu nahi badugu horrela egin beharko dugu. Hau ikusita datorren ikasturterako ondorengoa proposatzen dugu:
- Kaleko jendearen elikadura ohituretan eragiteko eta bertako janariak jateak duen garrantzia ikusarazteko kanpaina informatiboak diseinatu, prestatuko eta zabalduko ditugu karteekin, marrazkiekin...

3. mailako ikasleak etorkizuneko garraioa nola izan beharko lukeen aztertu dugu. Ibarraundi museoan egin ditugun egonaldietan konturatu gara gasolinarekin arazo handia dugula eta gasolina geroz eta gutxiago dagoenez ezinbestean gure mugikortasun ohiturak aldatu behar ditugula.

Egoera hau hobetzeko ondoko eskuhartzea proposatzen dugu datorren ikasturterako:

- “Kotxerik gabeko” eguna antolatu nahi dugu.

2023/04/25
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

- Egun hau antolatzeko kanpaina bat egin behar denez, berau, pentsatu, diseinatu eta prestatu eta gauzatuko dugu.

Nolakoak izango beharko lukete etorkizuneko etxebizitzak? Hori da 5. mailakook aztertu duguna. Aldaketa klimatikoa egunerokoan nabaritzen dugun gauza bat da, ikusi besterik ez dago, azken urtean pasa ditugun beroak. Hau ikusirik, munduan etxebizitzak nola eraikitzen hasi diren ikusi dugu eta etxean aislamendu aproposak zeintzuk diren aztertu dugu.

Ikusita zein garrantzitsua izango den etxebizitzaren isolatzea, beti ere energia askoz gutxiago kontsumitze aldera, gure eskuhartzea ondorengoa izango da:

Arreta berezia piztu digu, “ortu bertikalak” deiturikoak eta gure eskuhartzea horien inguruan egitea pentsatu dugu. Hau bideratzeko, ondorengoa eskatzen dizuegu:

- Ortu bertikal txiki bat diseinatu eta prestatuko dugu jendeak ikusi ahal izateko. Horretarako leku apropos bat erabiltzeko eskaria egiten dizuegu.
- Kaleko jendeak zer den jakingo ez duenez, “ortu bertikal” hauek ondo azalduko dituzten panel informatiboak prestatuko ditugu.
- Honekin batera kanpaina bat egingo dugu, Eskoriatzako biztanleek euren balkoietan berdeguneak sortu ditzaten eta lehiaketa bat antolatuko dugu. Lehiaketa horren irabazleak bertako haziak jasoko ditu.

DBH 1. mailakoak gure etorkizuneko aisialdia nolakoa izango den aztertu dugu. Ibarraundi museoa egin ditugun egonaldietan ikusi dugu, gure aisialdia geroz eta lotuagoa dagoela “pantailekin”. Honek arazo desberdinak sortzen ditu eta horietako bat da gure aisialdiak geroz eta energia gehiago eskatzen duela: ordenagailuak, mugikorrak,...

Hau aztertuta Eskoriatzan aisialdirako dagoen eskaintzaren gabeziak aztertu ditugu eta gure eskuhartzea ondorengoa izango da:

- Talde bat sortuko dugu teknologiarik gabeko eta gure aisialdia beste modu batera bizitzeko proposamenak egingo dituenak.
- Honekin loturik eta ikusita Gazte Lekuak astean zehar ekintzak ez dituela antolatzen, ekintza desberdinak proposatuko dituen gida bat idatziko dugu.
- Honekin lotuta hitzaldi bat antolatzea aurreikusten dugu.

2023/04/25
Ez Ohiko Udalbatza
Pleno Extraordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Hauek dira aurten landu ditugunak, eta prest gaude datorren urtean eskuhartzeari eusteko, horretarako baina, ezinbestekoa izango da zuen laguntza eta parte hartzea.

Arratsalde on eta eskerrik asko.